


ELSA ETA PARADISUA

Mariasun Landa
Marrazkiak: Elena Odriozola



erein **AUSKA** 

ELSA ETA PARADISUA



Liburu hau inprimatzeko erabili den papera ekologikoa da eta modu jasangarrian kudeatutako basoetatik dator.

Obra honen edozein erreproduzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.conlicencia.com; 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

Liburu honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren diru-laguntza jaso du.

1. argitalpena: 2023ko urtarilean

Azala eta barruko irudiak:

© Elena Odriozola

Maketazioa:

Erein

© Mariasun Landa

© EREIN, Donostia 2023

ISBN: 978-84-9109-861-4

L. G.: D 37/2023

EREIN Argitaletxea

Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300

e-posta: erein@erein.eus

www.erein.eus   

Inprimatzailea: Itxaropena, S. A.

Araba kalea, 45

20800 Zarautz

T 943 835 008

e-posta: itxaropena@itxaropena.net

www.itxaropena.net

MARIASUN LANDA

ELSA ETA PARADISUA

Marrazkiak: Elena Odriozola

erein **AUSKA** 

idazlea
mariasunlanda



Txikitan, nik ere entzuten nuen paradisuaz hitz egiten. Galderak egiten nituen, eta batzuetan erantzuten zidaten, eta beste batzuetan ez. Garbi zegoen lekurik desiragarriena zela, horregatik, nik pastelez betetako mahai handi bat irudikatzen nuen. Horrekin batera, istorio miresgarriak, apartak eta oso zirraragarriak kontatzen zizkidaten, eta nire gustukoak ziren.

Handik denbora askora, Elsa izeneko neskatila batek paradisia zer zen galdetu zidan. Orkatila okertua zuen, landetxe berean geunden eta triste eta haserre zegoen, batez ere bere nebeekin. Luze hitz egin genuen. Eta horrela izan nuen liburu hau idazteko gogoia eta beharra. Elsak, nire istorioak entzun eta gero, aurre egin zien bere nebei, helduagoa sentitu zela aitortzeraino. Kontu eta istorio miresgarriak horretarako baliok baitute nonbait!

elenaodriozola

ilustratzailea



1995en argitaratu zen neuk ilustratutako lehen liburua, eta horretan jarraitzen dut, marrazten. Oraindik ez naiz aspertu eta ez dut uste hori gertatuko denik inoiz.

Beti pentsatu izan dut gustatzen zaizun jarduera horrek izan beharko lukeela zure lanbidea, horretarako balio baldin baduzu. Gauzak askoz hobeto joango lirateke. Beraz... bizitzan oso inportantea da argi izatea, txikitatik, benetan gustatzen zaizuna zer den.

Elsak paradisuaz galdetu zuenekoa

Elsak bost bat urte zituenean, honako hitz hau entzun zuen lehen aldiz: *pa-ra-di-su*. Gustatu egin zitzaion.

Ia bost segundo luze behar izan zituen zer esan nahi zuen galdetzeko.

Amatxori galdetu, eta haren erantzuna izan zen: «Ummm...».

Aitaxori galdetu, eta haren erantzuna izan zen: «Elsa, orain ez dut astirik!».

Bikiak ziren bi neba nagusiei galdetu, eta erantzuna izan zen: «Paradisua futbol-zelai handi-handi bat da», batak; «Igerileku handi-handi bat», besteak.

Izeba maistrari galdetu, eta erantzuna izan zen: «*Chi lo sa!*».

(Izeba hasi berria baitzen italiara ikasten). Eta gero, hitza ahaztu egin zitzaion Elsari.



Elsak zazpi bat urte zituenean, hitz bera harrrapatu zuen airean berriro: *pa-ra-di-su*.

Bost minutu eskas behar izan zituen hitzaren esanahia jakiteko gogoa pizteko berriro.

Amari galdetu, eta hark leku zoragarri bat zela erantzun zion.

Aitari galdetu, eta hark irudimenean baino ez zela existitzen erantzun zion.

Neba nagusiei galdetu, eta haiek «*No idea!*» eta «*Aucune idée!*» erantzun zioten.

(Biki bat hasiberria zen ingeleseko klase partikularrak hartzen; bestea, frantsesekoak).

Izeba maistrari galdetu, eta hark erantzun zion leku hori Italian zegoela, seguru (ordurako izebak senargai italiarra zuen).



Elsa, hamar urte zituenean, oporretan joan zen super landetxe batera. Dena ondo zihoan, harik eta, lasterka ibiltzeagatik –nork esango zuen!–, leku malkartsu batean pauso txar bat eman zuen arte. Orkatila bihurritu, oina lotu eta denbora baterako geldirik egoteko agindu zioten. Etxe hartan geratu zen, familiari ez zitzaiolako egokia iruditu oporretako plana bertan behera uztea; gainera, hiriko etxea senide batzuei utzia zieten bi asterako. Ingu-rua atsegina egin zitzaion Elsari, eta are gehiago adineko dama bat agertu zenean, itxura zuena munduan zehar bidaiatzen ari zela denborari erreparatu gabe. Gona zabala, mendiko botak eta lastozko kapela zeramatzan soinean. Eta poltsa handi-handi bat. Atsedean hartzera zetorrela esan zuen, eta halaxe izan zen. Ez zuen ezertxo ere egin. Landetxearen atarian egon besterik ez, in-txaurrondopeko egurrezko aulkian eserita. Izena galdetu ziotenean, Paradisu izena zuela erantzun zuen, eta Elsa asaldatu egin zen: Paradisu!

Ordu batzuk baino ez zituen behar izan ha-
rengana hurbiltzeko...

—*Paradis*u hitzak zer esan nahi du?

Dama hark oso modu adierazgarrian begiratu
zion, aspalditik galdera horren zain egon izan ba-
litz bezala.

—Galderak erantzun anitz ditu —esan zion, no-
labaiteko lan edo erantzukizun astunen bat bizkar
gainean hartzeko zalantzan dagoenaren antzera...

Elsak jarri zuen aurpegiak pena eman zion,
nonbait, emakumeari. Bat-batean, konturatu zen
haurren galderekin ezin dela luzamendutan ibili.

—Zergatik ez zara besteekin jolasten ari?

Elsak orkatila lotua erakutsi zion.

—Ummm, hau bai dela bitxia! Zuk orkatila
bihurritu, ni ailegatu, zuk niri paradisuz gal-
detu... Kointzidentzia asko, ezta?

Elsak batere ulertzen ez zuelako plantak egin
zituen, nahiz eta elkarrizketa xeble hark gero eta
interes biziagoa sortzen zion. Bere bizitzako datu
garrantzitsu bat emateko aukera ikusi zuen Elsak:

—Niri hitz batzuk gustatu egiten zaizkit, eta
beste batzuk ez. *Paradis*u atsegin dut.

—Esanguratsua iruditzen zait hori. Niri gauza bera gertatzen zait txikitatik. Uste dut ondo konponduko garela.

Elsak beste zerbait esateko gogoia izan zuen, ziur asko seriooki tratatua izateagatik harro sentitzen zelako.

—Niri istorioak entzutea gustatzen zait.

—Bai, badakit. Eta zure galderen erantzunak jasotzea, eta ulertzen ez dituzun gauzak argitzea. Konturatu naiz.

Damak botetako lokarriak askatu zituen, oinak estu baitzituen; lastozko kapela burutik kendu, eta adats urdin distiratsu eta luzea sorbalde-taraino utzi zuen erortzen. Poltsa zabaletik iratzargailu gorri bat atera, eta giltza eman zion, une batetik bestera siesta egin behar balu bezala.

—Egun batzuetarako geratuko naizela uste dut... Paradisuari buruz hitz egin ahal izango dugu, baina nik esaten dudanean soilik, ez baitut denbora askorik, atsedean hartzera etorri naiz eta. Eta paradisia ez da egun batetik bestera uler daitekeen zerbait. Konturatuko zara.

Elsak zenbait erantzun aurkitu eta istorio batzuk entzun zituenekoa

Lehen eguna.
Lehen solasa.
Eguzkia hasi da berotzen, baina intxaurrondoaren gerizpean gustura egoten da.

Elsaren gurasoak eta nebak igerilekurik hurbilenera joan dira.

Paradisuk giltza eman dio erloju gorriari.

Elsa ondoan eseri zaio, kuriositatea du.



Paradisua, anabasa zoragarria

1

Hasiera-hasieran, Elsa, ezerk ez zuen izenik.

Paradisuak ez zuen *paradisu* izena, ezta ogiak *ogi* ere.

Hura ondo zegoen, baina nahaspila hutsa zen benetan.

Pinu batek beste pinu bat agurtu nahi zue-
nean, zera esaten zion: «E, hi!». Eta pagoa, haritza,
palmondoa, sagarrondoa, olibondoa eta beste
zuhaixka despistaturen bat ere jirutzen ziren.

Karakol batek beste bati esan nahi zionean «Hi,
karakol, ken hadi nire bidetik, presa diat eta!», bi-
detik baztertzen ziren harriak, zuhaitzen hostoak,
inurriak, bareak, eskorpioiak eta goroldioa bera,
nahiz eta orduan ere mutu ospea izan.

Gaztaina batek beste bati esan nahi zionean
«Zer, gaztaina, batera egingo dugu salto adarretik?»,
lurrera erortzen ziren laranjak, sagarrak, intxaurrak,

gingak, muxikak... Eta meloiak tristatu egiten ziren, ezin zutelako jauzirik egin.

Horrela ezin zen jarraitu.

Sekulako saltsa zen hura.

Hura guztia konpondu nahi izan zutenean, ordea, okerragoa izan zen.

Nor bere buruari nahi zuen bezala deitzen hasi zen. Beraz, pinu batek beste bati diosala egiten zionean, A deitzen zion, baina hark B izena zuela uste zuen; beraz, banana batek edo txolarre batek edo orangutan batek erantzuten zion pinuari, lekuaren, orduaren edo klimaren arabera.

Nahaspila handiagorik.

Azkenik, erabaki zuten norberak nahi zuen bezala deitzea bere buruari, baina bere kolkorako besterik ez. Eta besteei ez deitzea. Mututzea. Gor bihurtzea. Eta, orduan, iskanbilarik ez. Baina aspergarri baino aspergarriagoa zen dena...!

Harik eta hizkuntza eta, geroxeago, hiztegiak asmatu ziren arte.

Baina, ordurako, paradisia ez zen paradisu, eta *mundu* izendatzen hasia zen.

2

Paradisuan, Elsa, ez zen denbora igarotzen. Historia asmatu gabe zegoen artean. Are gehiago, ez zegoen ez astelehen, ez astearte, ez asteazken, ez ostegun, ez ostiral, ezta larunbatik ere.

—Ez al zegoen iganderik?

—Paradisuan, egunero zen igandea.

»Paradisuan ez zegoen urtaro aldaketarik, ez eguraldi iragarpenik, edo alerta gorri edo laranja-rik. Ez zegoen negurik, udaberririk, udarik, ezta udazkenik ere.

—Ez al zegoen Eguberririk?

—Paradisuan, beti zen Eguberria. Paradisuan, ez ziren hilabeteak pasatzen, ezta urteurrenak edo mendeurrenak ere, eta are gutxiago milurtekoak... Ez zegoen zazpi eguneko asterik, ezta hamabi hilabeteko urterik ere.

—Ez al zegoen urtebetetzerik?

—Han, egun guztiak ziren urtebetetze egunak.

—Ez dakit hori gustuko dudana...

—Baina ez duzu gustuko imajinatzea?

—Bai horixe!

—Ba, horrek bakarrik axola du.

3

—Eta paradisuak tarantulak egongo ziren?

—Denetarik zegoen, Elsa, baina etiketa barik. Etiketak gero heldu ziren. Zomorro gaizto. Arriskugarri. Pozoitsu. Kutsakor. Oldarkor. Otzan. Etxe abere. Basati. Ornodun. Ornogabe. Intsektu. Anfibio. Ugaztun. Parasito...

»Mundua paradisu bat zenean inork ez zuen besteez abusatzen. Lehoiak ez zuen gazelarik jaten, ezta txakalak arkumerik edo katuak sagurik ere, ezta...

—Zer jaten zuten, orduan?

—Behiak belarra miazkatzen zuen, txolarreek kilimak egiten zizkieten zizareei, armiarmak euliekin jolasten ziren...

—Zer jaten zuten ba?

—Arrain handiak arrain txikiari hobeto igeri egiten erakusten zion, txakurra katuarekin solasean egon ohi zen, katua gaztarekin...

—Baina zer jaten zuten ba?

—Hara, zer galdera! Agian, paradisian ez zegoen jan beharrik. Barau egiten zuten denek. Maiteminduta gaudenean bezalaxe.

4

—Elsa, paradisian ez zen ezer falta. Onenetan onena imajinatzen saiatu zaitez; hantxe zegoen.

—Ba al zegoen telebistarik?

—Ez zegoen beharrik.

—Ba al zegoen autorik?

—Ez zegoen beharrik.

—Ba al zegoen litxarreriarik?

—Ez zegoen beharrik.

—Ba al zegoen Internetik?

—Ez zegoen beharrik.



—Ba al zegoen eskolarik?

—Ez, eskolarik ez. Hori ziur. Han denek zekiten jakin behar zutena: euriak euria egiten, arrai-
nek igeri egiten, hegaztiek hegan egiten, haizeak
txistu jotzen, elurak elurra egiten...

—Hori normala iruditzen zait.

—Ibaiek itsasoratzen zekiten, itsasoek beren
lekuan egoten, izarrek zeruan irudiak osatzen, pla-
netek eguzkiaren inguruan jira eta bira ibiltzen,
eguzkiak, sute etengabea, inoiz ez itzaltzen, biru-
sek geldi-geldirik egoten, erleek ezta egiten, har-
tzek ezti hori jaten...

—Baina norbaitek matematika erakutsiko
zuen, ezta?

—Paradisuan bi bider bi 20 zen.

»20 ken 12 berdin 36.

»5 zati 12 berdin 87.

»33 ken 3 berdin 0.

»Zetaz bukatzen zen alfabetorik ez zegoen.
Ezta hizki larriz idatzitako erromatar zifrarik ere,
han ez baitziren hizkiak existitzen, ezta zenbaki bi-
koitirik edo bakoitirik ere.